

57. FITXA BIZKAIA – SAREAn dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek eta udal sozietate publikoek 2024ko ekitaldian zehar antzerki, musika eta dantza arloko ikuskizunen programazioak egiteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: SAREAn integratuta dauden eta oinarrietako baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, udal erakunde autonomoak eta udal sozietate publikoak

Sarbide-esteka: [Hasiera – Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza elektronikoa](#)

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 92/2024 FORU DEKRETUA, abuztuaren 21ekoa. Honen bidez, foru-dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira 2024ko ekitaldian zehar antzerki, musika eta dantza arloko ikuskizunen programazioak egin ditzaten SAREAn dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek eta udal sozietate publikoek](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 566.000 € udalentsat eta udal erakunde autonomoentzat; 155.000 € udal sozietate publikoentzat

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/09/26 (13:30ean)

Laburpena

Hauxe da diru-laguntza jaso dezakeen jarduera: **antzerki, musika eta dantza arloko programazioa**, baldin eta **SAREAn** dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek eta udal sozietate publikoek eskaintzen badute.

Aplikazio-eremutik **kanpo** geratzen da aikloetan edo jaialdietan sartutako programazioa, Bizkaiko Foru Aldundiaren beste diru-laguntzaren bat jasotzen badu.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diru-laguntza jaso dezakeen gastutzat hartuko da **ikuskizunen katxeta**; katxet gisa, berriz, **kontratazio-gastuak** hartuko dira, eta haren barruan BEZa sartuko da baldin eta BEZ hori ezin bada berreskuratu edo konpentsatu.

Eskabidea aurkezten den egunean, onuadunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Ekipamendu eszeniko egonkorra izatea (antzokia, entzungela...), proposatutako programazioaren beharrianetarako egokia, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen segurtasun-neurri guztiak betzea eta programatzen diren ikuskizunetarako erantzukizun zibileko aseguruia izatea.
- b) 2024ko ekitaldian zehar egiten diren programen alderdi tekniko guztiak koordinatzen dituen arduradun bat edukitzea.
- c) 2024ko ekitaldian parte hartzen duten konpainia edo artistak kontratatzekeo gastuei erantzun ahal izateko aurrekontuko partida egokia izatea.
- d) Urtean, gutxienez, zortzi ikuskizun antolatzea, antzerki, musika eta dantza arloko ikuskizunetan. SAREAn 2024an zehar sartu diren udalei, udal erakunde autonomoei eta sozietate publikoei dagokienez, programazioaren barruan sartu behar diren ikuskizunen gutxienezko kopurua udalak aurtengo ekitaldian SAREAn daraman hil kopuruaren arabera izango da.
- e) Musika ikuskizunetan, urtean bi ikuskizun ezberdin programatzea gutxienez.
- f) Gutxienez 3 €-ko sarrera kobratzea ikusle bakoitzari, diru-laguntza jasotzeko aurkeztu diren ikuskizun guztietan.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diru-laguntzaren eskaera eragin duten jarduerak **2024 ekitaldian** egin beharko dira.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, onuraduneko, ezin izango da inola ere **59.000,00 €-tik** gorakoa izan.

Emandako diru-laguntzak ezin izango du inoiz gainditu diruz lagundutako ikuskizunak kontratatzekeo kostu osoaren **% 50**.